

ZIOA

Osakidetzan, gainerako bizitzako eremuen antzera, joan da uda sasoiko oporrak, beharrezkoa den deskantsua hartzeko momentua. Halaber, aipaturiko oporrak urtero iritxi arren, urtero inolako planifikazio eta aurreikuspenik gabe aurkitu dira Osakidetzako langileak; ondorioz, urtetik urtera egoera larriagotzen doa. Izan ere, jada Osakidetzak pairatzen duen osasun profesional gabezia ez delako soilik uda sasoiko oporretarako, gainerako oporretakoa edota beste era batera esanda, gertakizun puntual bat. Urteetako planifikazio gabeziak eta pertsonal politika ez egokiak gaur egun Osakidetzak aurkitzen den egoera kaxkarrera eraman dute, horren guztiaren ondorioak herritarrek euren osasun arretan pairatzen dutelarik; nahiz eta osasun langileek ahal duten guztia egin...dituzten baldintzetan gero eta zailagoa izan da euren gain-esfortzuari esker arreta kalitatea mantentzea.

Pandemia baino askoz ere lehenago, urteak lehenago, jada aurreikusten zen Osakidetzan urte hauetan egongo ziren jubilazio kopuru altuak. Hala adierazten zuten, osasun eragile, sindikatu, aditu eta baita Osasun Sailak ere. Baina urteetan ez zen eta ez da horri aurre egiteko neurririk hartu. Halaber, Jaurlaritzak ere Europatik ohararazpenak jasoak zituen, ezartzen ari zen kontratazio pertsonalagatik, zeinaren bidez tenporalitatea sustatu den eta horrek, Osasun Etxeetan mugikortasun handia, desatxikimendua eta baldintza kaxkarrak ondorioztatu dituen. Poliki-poliki plantillaren mehetzea ekarri.

Ondorioz, gaur da eguna non gure herriko osasun etxeen egoera, Etenik Gabeko Arreta Guneena edota Emergentziak Erakunde Sanitario Integratuarena jasanezina dela. Eta udalok, horren aurrean ezin gara ixildu, ikusita horrek guztiak gure herrietan dituen ondorioak, batez ere herritar zaurgarrienetan, osasun arreta jarraipena behar dutenetan eta oro har herritar oroengan duen eraginagatik. Debagoienean ere, egoera gero eta kaxkarragoa da jasanezina ez esateagatik. Horren lekuko dira, eskualdean ditugun bi anbulategi nagusi, bai Bergarako eta bai Arrasatekoa. Esateko egun, Bergarako Osasun Zentroan 9 medikutatik 4 bakarrik daude, horren ondorioz, internet bidezko txandak ezin dira hartu eta medikuarekin txanda hartzeko 8etatik 8:15etara deitzera derrigortzen dute.

Horrez gain, eskualdeko Osasun Mentaleko anbulategia deseginda dago. Donostiatik etortzen diren 2 psikiatreek astelehen arratsaldetan 4 ordu dituzte, guztira 8 ordu astean, 35 ordu beharrean. Psikologoaren plaza hutsik egon da uda aurretik, hau ere astelehen arratsaldetan 4 orduz ordezkatu dute. Hala ere, jakin dugunaren arabera urritik aurrera egongo da psikologoa. Horrenbestez, egiturazko lanpostuak izan arren eskualdean beharko genituen lanpostuen azpitik egon, horiek ere ez daude estalita.

Emergentzien egoera ere ez da hala-nolakoa, ez daukagu informazio zuzenik zein egoeretan egiten duten lan, jakin badakigu medikalizatuta egon beharko luketen anbulantziak mediku barik egon direla

lanean, hori guztia sare sozialen bidez jakin dugu, hala ekaina eta uztailean 70 txanda baino gehiago egon ziren mediku gabe, horietako batzuk Oñatiko anbulantziari dagokionak direlarik. Egun horietarako batzuk eskualdeko herri batzuetako jaiekin kointziditu dute eta beste egun batzuetan Gipuzkoa osoan soilik anbulantzia medikalizatu bakarria egon da.

Ondorioz, arestian aipaturiko arrazoiengatik eta egoeragatik, Bergarako Udalak ondorengo MOZIOA onartzen du eta bere ondorioetarako Osasun Sailera igorriko du:

1.- Bergarako Udalak eskatzen dio Osasun Sailari, herritarrei kalitatezko arreta ziurtatzeko Bergarako osasun etxe eta Etenik Gabeko Arreta Guneetako ordutegi eta txanda guztietan beharrezkoak dien espezialitate eta kategoria guztietako osasun profesionalak ezar ditzala, baita medikuak ere. Horretarako, has dadila pertsonal politika eraldatzen eta Osakidetzako mahai sektorialean adosten epe motz, ertain eta luzera begirako neurriak osasun langileen ordezkariekin. Eta urgentziaz ordezkari ditzala Bergarako Osasun Zentroko 9 medikutatik falta diren 5 medikuak.

2.- Bergarako Udalak eskatzen dio Osakidetzari, Debagoieneko ESI-rako hurrengo opor sasoiei begira kontingentzia plan propioa definitu eta adostu dezala bertoko osasun langileekin.

3.- Bergarako Udalak eskatzen die Osasun Sailari eta Osakidetzari, Osasun Etxeetako zein udal herriko zerbitzuetako ateetan eta iragarki tauletan osasun zerbitzuetan izango den ordutegia eta egongo diren zerbitzuak gardentasunez azaltzeaz gain, komunikabideen bidez ere, aurrez herritarrei jakinaraztea. Horrela herritarrek momentu oro jakin dezaten nora jo, izan dezaketen gaixotasun edota larritasunaren arabera.

4.- Bergarako Udalak eskatzen die Osasun Sailari eta Osakidetzari, Emergentziak ESI atera dezatela dimentsionamendu azpitik eta behar dituen kategoria guztietako langileak ezar ditzala bai herrialde bakoitzeko koordinazio zentroetan, bai eta anbulantzietan.

5.- Bergarako Udalak eskatzen die Osasun Sailari eta Osakidetzari, Debagoieneko Osasun Mentaleko anbulategian bete ditzala premiaz hutsik dagoen psikiatria lanpostua. Halaber, eskualdean herritarren artean dauden beharrak ikusita, psikologiako lanpostu gehiago ezarri eta bete ditzala, besteak beste maila komunitarioan ere osasun mentaleko sustapen, zaintza eta prebentzioa garatzeko.